



GIPUZKOA



ETA EUROPAR BATASUNA

## 104. INFORMAZIO BULETINA

> 2015ko Urria



GIPUZKOA



## NABARMENDU BEHARREKOA

### > Euskadiko EGEF 2014-2020 Programa Operatiboaren bigarren Jarraipen Batzordea egin dute

Urriaren 27an egin zen Bilbon 2014-2020 programazio-aldi berriko Euskadiko EGEF Programa Operatiboaren Jarraipen Batzordearen bigarren topaketa. Bertan izan ziren, Eusko Jaurlaritzaz eta sail ugariz gain, hiru foru-aldundiak, Ekonomia eta Ogasun Ministerioko Europako Funtsen Zuzendaritza Nagusia eta Europako Batzordeko ordezkariak beste eragile batzuekin batera.

Jarraipen Batzordearen bigarren bilera horren helburua Programa Operatibo berria abian jartzearekin eta garatzearekin lotutako alderdiak ezagutaraztea izan da: funtzioak eta prozedurak, informatikako aplikazioak, ebaluazio-sistemak, lanak hautatzeko prozedurak eta abar. Horrekin lotuta, Programa Operatiboa garatzeko beharrezko eskuliburuak eta dokumentazioa onartu dituzte.

Bileran, gainera, modu aktiboan hartu dute parte SPRIko eta Eusko Jaurlaritzako Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiko ordezkariak. SPRIren kasuan, agentziak bilerara joandakoekin partekatu du bere laguntza-programen inpaktua ebaluatzen pilatutako esperientzia. Kanpo Harremanetarako Idazkaritzak, bestalde, Estrategia Atlantikoa eta Euskadik bertan betetzen duen rola aurkeztu ditu.

*Informazio gehiago:*

<http://www.ogasun.ejgv.euskadi.eus/r51->

[19239/eu/contenidos/informacion/politica\\_regional/eu\\_2340/portada\\_polregi.html](http://www.ogasun.ejgv.euskadi.eus/r51-19239/eu/contenidos/informacion/politica_regional/eu_2340/portada_polregi.html)



### > Foru Aldundiak Gipuzkoa Europa mailan I+G+Bren arloan aitzindari izan dadin, enpresa eta teknologia zentrozen elkarlana bultzatzen jarraituko du

Lurraldeko Zientzia, Teknologia eta Ikerkuntza sarearen aldeko apustua berretsi du Gipuzkoako Diputatu Nagusiak, Markel Olanok, IK4 Teknologia Aliantzako zentroetara urriak 22an egindako bisita ofizialean. Egindako bisitan, Diputatu Nagusiak Europar Batzordeak berrikuntzari lotutako Gipuzkoako 10 proiektu saritu berri dituela jakinarazi du.

Diputatu Nagusiak I+G+Baren arloan Europak izan behar du Gipuzkoaren erreferentzia: “Gipuzkoa Europa mailan I+G arloko eskualde aitzindari gisa posizionatzeko lan egin behar dugu. Gure enpresek eta industriak produktu eta zerbitzu berriak garatzeko, ezinbestekoa delako kalitatezko Berrikuntza eta Ikerkuntza sustatzea, enpresa eta teknologia zentrozen arteko elkarlana bultzatzea”.

Bestalde, Diputatu Nagusiak jakinarazi du Europako Batzordeak berrikuntzari lotutako Gipuzkoako hamar enpresa saritu berri dituela “Pepitas de Oro” programaren baitan. Horietatik bi, gainera, IK4 Aliantzako proiektuak dira. “Gipuzkoako eta Euskadiko enpresek egin behar duen apustuaren aitzindari dira. Zorionik beroenak eman behar dizkiegu lan hori egiten ari diren enpresa eta langileei”, azaldu du.

IK4 Teknologia Aliantzak EAEko bederatzi teknologia zentro batzen ditu (AZTERLAN, CEIT, CIDETEC, GAIKER, IDEKO, IKERLAN, LORTEK, TEKNIKER y VICOMTECH) eta guztira 1.300 langile ditu. Urtero 102 milioiko diru-sarrerak izaten ditu eta, kopuru hori kontuan izanda, Europako teknologia korporazio pribatuen artean 10.ena da. Horien guztien artean enpresek beraiek jarritako finantziazio gehien jasotzen duena da.

*Informazio gehiago:*

[http://www.gipuzkoaberri.eus/WAS/CORP/DPDOficinaPrensaDigitalWEB/nota.do?id=2464&detalle=1&anti\\_ache=1446657917286#](http://www.gipuzkoaberri.eus/WAS/CORP/DPDOficinaPrensaDigitalWEB/nota.do?id=2464&detalle=1&anti_ache=1446657917286#)



### > **Hazkunde Iraunkorreko EGEF Programa Operatiboa aurkeztu dute**

Ogasun eta Administrazio Publikoen Ministerioak urriaren hasieran aurkeztu du Hazkunde Iraunkorreko EGEF Programa Operatiboa (POCS – gaztelera, Programa Operativo de Crecimiento Sostenible). Programa Egitura Funtsekin eta Espainiako Europako Inbertsio Funtsekin babestutako eskualde askotako programen baitan dago.

POCS da, Hazkunde Adimentsuaren Programarekin eta PYME (ETE) Ekimenarekin batera, 2014-2020an EGEF Funtzarekin batera finantzatutako Estatu mailako hiru programa operatiboetako bat. Programa horiez gain, eskualde mailako beste 19 programa operatibo daude eta horietako bat da 2014-2020 Euskadiko EGEF Programa Operatiboa.

POCS hazkunde iraunkorarekin zuzenean lotutako lau ardatz tematikotan oinarrituta dago: karbono gutxiko ekonomia bultzatzea, hiri-garapen iraunkor integratua, ur-kalitatea hobetzea eta garraio iraunkorra.

POCSen finantza mailako zenbatekoa 5.520 milioi eurokoa da; hau da, guztizkoaren % 28koa. Estatu mailako ekarpen publikoa eta pribatua gehituta, inbertsioa, gutxi gorabehera, aldi osoan 7.690 milioi eurokoa izango dela aurrez ikusi da.

*Informazio gehiago:*

[http://www.dgfc.sgpg.meh.es/sitios/dgfc/es-ES/ipr/fcp1420/p/Prog\\_Op\\_Plurirregionales/Documents/PO\\_Cre\\_Sost+Dec.pdf](http://www.dgfc.sgpg.meh.es/sitios/dgfc/es-ES/ipr/fcp1420/p/Prog_Op_Plurirregionales/Documents/PO_Cre_Sost+Dec.pdf)



## KOHESIO-POLITIKA

### > “Iniciativa PYME” delakoa abian da

Urriaren hasieratik, “Iniciativa PYME” (ETEak ekimena) izenekoaren bidez enpresa txiki eta ertainek maileguetara sarbidea izan dezakete baldintza onuragarriagoetan.

“Iniciativa PYME” Espainiako ETE-en finantzaketa hobetzera bideratutako Europako finantzaketa-tresna berria da. Eskualde bakoitzak bideratuta dituen EGEF funtsak erabilita, arriskuen estaldura hobetzen du ekimenak. Horretarako, autonomia-erkidegoek (horien artean daude EAE eta hiru foru-aldundiak) Egitura Funtsetako 800 milioi euroren kontrolari uko egitea onartu dute. Horri esker, Europako Inbertsio Bankuaren (EIB) bidez, kreditutan 3.200 eta 5.300 milioi euro artean mobilizatzeko funtsa sortu dute.

“Iniciativa PYME” ekimeneko baliabideak finantza-erakundeek ETE-*ei emandako mailegu berrien berme gisa erabiltzen dira.*

Mailegu horietara sartu ahal izateko ez da edozein bankutan finantzaketa eskatzeko bete behar diren arrisku-irizpide estandarrez gain beste baldintza berezirik beharko; izan ere, finantzaketa finantza-erakundeen bidez bideratzen da.

*Informazio gehiago:*

<http://www.minhap.gob.es/Documentacion/Publico/GabineteMinistro/Notas%20Prensa/2015/S.E.%20PRES UPUESTOS%20Y%20GASTOS/01-10-15%20NP%20Firma%20Iniciativa%20PYME%20y%20Bancos.pdf>





### > Euskadiko ordezkariak zuzendu du *Smart Maritime Alliance* taldea Open Days 2015etan

Urriaren 13, 14 eta 15ean egin dituzte Bruselan *Open Days* izenekoak. Europako eskualdeen urteroko hitzordua da eta, bertan, hiri eta eskualdeek hazkundea eta enplegua sortzeko eta Europar Batasuneko Kohesio Politika ezartzeko duten gaitasuna erakusten dute.

Edizio honetan antolatutako jarduez gain, Euskadik zuzendu du *Smart Maritime Alliance* izeneko osatzen duten eskualdeen taldea. Horren helburua itsasoko eskualdeen interesak defendatzea eta itsas sektorearekin lotutako lehiakortasunaren, berrikuntzaren, prestakuntzaren eta espezializazioen arloetan jardunbide egokiak eta potentzialtasunak aurkeztea da. Euskadiko ordezkariak Europar Batasunerako antolatutako jardunaldian ehun lagun inguru bildu da.

*Informazio gehiago:*

[http://ec.europa.eu/regional\\_policy/opendays/od2014/index.cfm](http://ec.europa.eu/regional_policy/opendays/od2014/index.cfm)

<http://www.cor.europa.eu/es/news/regional/Pages/euskadi-lidera-la-smart-maritime-alliance-en-los-open-days-2015.aspx?>



### > Europako Funtsetan Emakumezkoen eta Gizonezkoen Berdintasun Politiketako Sarearen web-ataria kaleratu dute

Europako Funtzen Emakumezkoen eta Gizonezkoen arteko Berdintasuneko Politiken Sareak web-plataforma berria kaleratu du Sareak egiten duen lanari balioa eman, eta egitura eta edukia sendotzeko asmoz.

Emakumezkoen eta Gizonezkoen arteko Berdintasuneko Politiken Sarea da 2014-2020 programazio-aldian Europako Gizarte eta Inbertsio Funtsek (EGIF, EGEF, Kohesio Funtza -KF-, FEMP eta FEADER) beste batzuekin batera finantzatzutako lanetan generoaren ikuspegiaren txertaketa erreal eta eragingarria hobetu ahal izateko eztabaidarako eta azterketarako gune nagusia. Sarea Eskualde Garapenerako Europako Funtzak (EGEF) finantzatzen du beste batzuekin batera.

Webgune berriak, Europako funtsei eta genero-berdintasunari buruz eskuragarri dagoen dokumentazioaz gain, honako datu hauek biltzen ditu: zer den Sarea, funtzionamendua, garatzen dituen jarduerak, prestatutako tresnak eta argitaratutako albisteak eta aldizkariak. Bestalde, Sarearekin lotutako gaurkotasuneko albisteak eta hurrengo ekitaldiei buruzko informazioa ere eskuragarri daude.

*Informazio gehiago:*

<http://www.igualdadgenerofondoscomunitarios.es/>



## EUROPA 2020 ESTRATEGIA

### > **Bikaintasuneko zigilu berria HORIZON 2020ren eskualde mailako ikerketaren finantzaketa hobetzeko**

Europako Batzordeak “Bikaintasun Zigilua” izeneko proiektua aurkeztu du. Horren bidez, eskualdeek HORIZON 2020ren baitan (EBko ikerkuntzako eta berrikuntzako programa) proiektu-proposamenei emandako kalitatezko bereizgarria ezagutu ahal izango dute. Aurrekontu mailako mugak direla eta finantzaketarik lortu ezin izan duten proiektuak dira horiek, baina eskakizun asko biltzen duen ebaluazio-prozesu independentean puntuazio handiak lortu izan dituzte.

“Bikaintasun Zigilua” izeneko horren helburua HORIZON 2020k baztertutako proiektu horiek beste finantzaketa-iturri batzuetara izan dezaketen sarbidea bultzatzea da: Europako Gizarte Funtsetara edo Estatu edo eskualde mailako beste inbertsio-programa batzuetara adibidez.

“Bikaintasun Zigiluaren” fase pilotuan, zigilua ETE-ek HORIZON 2020ren ETE-en tresna markoaren baitan aurkeztutako proposamenei bakarrik emango zaie. Ondoren, ekintza Horizon 2020ren beste esparru batzuk estali ahal izateko zabal daiteke.

*Informazio gehiago:*

<http://ec.europa.eu/research/regions/index.cfm?pg=soe>





### > **Gipuzkoak Garraio Adimentsuari, Ekologikoari eta Integratuari buruzko HORIZON 2020 Infoday izenekoa jasoko du laster**

Azaroaren 16an Gipuzkoako Foru Aldundiaren Trafikoa Kudeatzeko Zentroan egingo den jardunaldiaren helburua 2014-2020 aldirako finantzaketa-aukerak eta ikerkuntza-ildoak xehetasunez ezagutzea eta ulertzea da gai honen inguruan: HORIZON 2020 programaren baitako “garraio adimentsua, ekologikoa eta integratua”. Bertan, orain arte jasotako partaidetzako emaitzak eta kalitatezko hautagaitzak aurkezteko gakoak eskainiko dituzte.

Ekimena enpresetan eta enpresa-elkarteetan, klusterretan, aholkularitza-enpresetan eta abarretan I+G+b arloko erantzukizun direktiboak edo teknikoak dituzten pertsonei eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza arloetako Euskadiko Sareko eragileei zuzenduta dago, eta honako hauek hartuko dute parte besteak beste: CDTIK, Enterprise Europe Network kontsortzioa Euskadin, Innobasque, Euskadiko Mugigarritasuneko eta Logistikako Klusterra eta Deustu Unibertsitatea.

Jardunaldi horretan, parte-hartzaileek “*elevator pitch*” izenekoan parte hartzeko aukera izango dute. Metodo horren bidez, HORIZON 2020 programarako hautagaiak diren ideia berritzaileak aurkeztuko dizkiete gainerako partaideei denbora-tarte laburrean (minutu gutxian). Ideiaren oinarria testuinguru hipotetikoa izango da: nola konbentzitu bazkide izan daitekeen norbait proiektuan zurekin elkarlana egitera igogailu batean topatuz gero.

*Informazio gehiago:*

<http://www.spri.eus/es/eventos/tecnologia-infoday-horizonte-2020-transporte-inteligente-ecologico-e-integrado#sthash.liXVn1Rv.dpuf>



### > Batzordeak Batasun Ekonomikoa eta Monetarioa indartzeko aurrera egin du

Batzordeak Batasun Ekonomikoa eta Monetarioa osatzeko prozesuaren 1. etapa jarri du abian, "Praktikan sakontzea" izenekoa. Horren bidez, Batzordeko bost presidentek 2015eko uztailean Batasun Ekonomikoaren eta Monetarioaren etorkizunaren inguruko ikuspegiaren gainean egindako txostenari jarraipena eman zaio. Bertan, garapenean nola aurrera egin behar den zehaztu zuten.

Onartutako neurrien paketeak hainbat neurri jasotzen du: lehiakortasuneko Estatu mailako aholkuak eta kontsultarako Europa mailako kontseilu fiskala txertatzea; eta eurogunearen ordezkartza batuagoa nazioarteko finantza-erakundeetan (Nazioarteko Diru Funtsean bereziki). Banku Batasuna osatzeko eman beharreko urrats berriak ere zehaztu dituzte eta, zehazki, neurri hauek: gordailuen bermerako Europako sistema sortzea eta banku-sisteman arriskua murrizten jarraitzeko beste neurri batzuk.

Informazio gehiago:

[http://ec.europa.eu/priorities/economic-monetary-union/index\\_en.htm](http://ec.europa.eu/priorities/economic-monetary-union/index_en.htm)



## DOKUMENTU INTERESGARRIAK

### > **2014-2020 Kohesio Politika Euskadin (Enpresa Estrategia / EUROPA. 197. zk.)**

Estrategia Empresarial aldizkarian, Europari buruzko atalean, argitaratutako artikulua da. Bertan, Europako programazio-aldi berrian Euskadira bideratutako funtsei buruzko informazioa jasotzen da. Zehazki, artikulua araberara, 2014-2020 programazio-aldi berrian, Euskadik Europar Batasuneko 317,67 milioi euro (EGEFetik, EGIFetik eta FEADERetik) jasoko ditu guztira eskualdeko programa operatiboetan ezarritako funtsen bidez.

Horrez gain, artikulua Mikel Landabasori, Eskualde Politikarako Europako komisarioaren, Corina Creturen, kabineteko buruari, egindako elkarrizketa jasotzen du. Bertan, Kohesio Politikak eskualde batzuetako industriaren rola berreskuratzen lagun dezakeela aipatzen du (hori da, esate baterako Euskadiren kasua).

*Informazio gehiago:*

<http://www.estrategia.net/estrategia/Portals/8/PortadaEuropa-197.pdf>

### > **Europako lurraldeen arteko lankidetzaren ikuspegi historikoa (Europako Batzordea)**

Batzordearen Eskualde Politikako Zuzendaritza Nagusiak kaleratutako argitalpenean, barneko eta kanpoko lurralde-lankidetzaren ikuspegi historikoa orokorra dago jasota. Txostenaren bigarren zatian, eremu geografikoak, herrialdeak eta eskualdeak kontuan hartuta, lurralde-lankidetzaren arloko esperientziak daude zehaztuta, jardunbide egokiak eta intereseko adibideak identifikatuta.

*Informazio gehiago:*

[http://ec.europa.eu/regional\\_policy/sources/information/pdf/brochures/interreg\\_25years\\_fr.pdf](http://ec.europa.eu/regional_policy/sources/information/pdf/brochures/interreg_25years_fr.pdf)



### > INTERREG EUROPEren web-atari berria

INTERREG IVC deitzen zaion aurreko programazio-aldiko INTERREG EUROPE programa eskualdeko garapen-politikak hobetzea xede duten esperientziak eta ezagutza trukatzeko programa dela esan dezakegu. Batez ere, hazkunderako eta enplegurako inbertsioko Europako eskualde-programak biltzen ditu.

Web-atariaren bidez, Programarekin lotutako informazio guztia izan dezakegu eskuragarri: antolaketa, araudiak, deialdiak, onuradunak eta beste batzuekin batera finantzatutako jardueren adibideak.

*Informazio gehiago:*

<http://www.interregeurope.eu/>

### > Eskualdeko 2015eko estatistika-urtekaria (Eurostat)

Eskualdeko garapenerako Open Days izenekoekin bat eginez, Eurostatek Europako eskualdeen estatistikako urtekariaren edizio berria aurkeztu du.

Aurtengo edizioan 12 gai bildu dituzte: eskualde mailako politikak eta 2020a, biztanleria, osasuna, hezkuntza, lan-merkatua, ekonomia, enpresetako estatistika estrukturalak, ikerketa eta berrikuntza, informazioaren gizartea, turismoa, garraioa eta nekazaritza. Gainera, genero-berdintasunari, bizi-kalitateari eta Europako hiriei buruzko hiru kapitulu espezifiko ere jaso ditu.

Urtekaria osatzeko, Atlas Estatistikoa gehitu dute. Mapen bistaratzaille interaktiboa da eta urtekariko mapa estatistikoak jasotzen ditu. Mapak banaka deskargatzeko aukera ere eskaintzen du.

*Informazio gehiago:*

<http://ec.europa.eu/eurostat/documents/2995521/7029602/1-09102015-AP-EN.pdf/9bceff3c-0a06-484d-9bd2-d7ea86f8fd06>



### > Drop'pin (EURES)

Europako Batzordeak garatu duen web-atari horren helburua enplegu-bilaketan gazteriari laguntza ematea da. Horretarako, aukerak eskain ditzaketen enpresetara gerturatzen dituzte, honako hauei buruzko informazioa gehituta: praktikak, ikasketa profesionalari buruzko programak, aholkularitza, tutoretzak, hizkuntza mailako prestakuntzak eta abar.

*Informazio gehiago:*

<https://ec.europa.eu/eures/droppin>





## EUROPAKO DEIALDIAK

Jarraian, Gipuzkoatik interesgarriak izan daitezkeen eta azken hilabeteen argitaratutako deialdi nagusiei egindako erreferentziak biltzen dira. Deialdiak aukeratzeko orduan, irizpide gisa hartu dira horien gaia, hautagaitzak aurkezteko epea, egokitasuna eta hautagaiak izan daitezkeen eragileen aukeragarritasuna.

- **ERASMUS+.** 2016ko deialdia. Hezkuntza, prestakuntza, gazteria eta kirolari laguntzeko programa
- **2014-2020 Europa Sortzailea. MEDIA azpiprograma. EACEA 19/2015: Ikus-entzunezko lanekin lotutako proiektu-paketeak garatzeko laguntza (slate funding)**
- **Nekazaritza-politika bateratuaren (NPB) arloko informazio-neurrietarako laguntza 2016. urterako**